

B

BARREN

TOKIKOM

euskaraz

biziri

nahi dut



ELGOIBAR
SAN FRANZISKO

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaitez konpromisorik gabe

943 74 44 67



C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com



Arkaitz Irureta

Bakearen Nobel Sarixa Aznarri ematia proposatu nahi ziatela akordatu nauk gaurkuan, Justo. Berak ez, baiña Obamak lortu juan bat.

Hain urrutira juan gabe, Fracking-aren atarixan Gasteiz izendatu juek

Europako Green Capital. Donostia ere Kulturaren Hiria izateko hautatua izan dok, 1813ko abuztuaren 31n hiria erre, sarraski eta bortxaketen atzian nor egon zuan jakin nahi ez arren.

“Bizikleta elektrikuak estropeatzen ari omen dittuk, geldi daguzelako”

Elgoibarren ez gaittuk gutxiago! Elgoibar Berdea programak 2010. urtian Ingurumen Ministerioaren saria jaso juan, nahiz eta urte berian gaztiak ibaixa garbitzera sartu eta ateratako zaborrak jasotzeko kapaz ez izan Udala. Aurten Debegesak sustatuta egin dia- te ibai garbiketa bat, azaruan! Kanpotik etorritako bolondresek sal- batu juek (ezagun degu ibilli izan geranok badirala azarua baiño fe- txa aproposaguak).

Ba aurreko astian ere beste sari bat jaso ei jok Udalak sustatuta- ko Emugi zerbitzuak klima aldaketa- ren alorrian. Alor horretan aporta- zio txiki bakarria bizikletena dala esango niake. Bizikleta elektrikuok probatzeko aukera izan nian, eta ugetuta egotiaz gain, baterixiak ez juan esperotakuaren hamarrena ere aguantatu, eta pedaleri tiraka iri- tsi nitzuan, 10 kilometro eginda, birkarga puntura. Bertako teknikari- xaren esanetan estropeatzen ari omen dittuk geldi daguzelako. Bazkide bakarria ei dagok hamabi bizikletok erabiltzeko.

Hónek danek sarixa merezi bajuek, nolakuak ote dittuk sarixe- tan atzerago gelditu direnak?



Justo Arriola

Baten baten esfortzuarri edo zeregiñari es- kertze publikua emateko balixo leiken zera as- kotan ziri bihurtzen dok. Sarrittan kirats politi- kua darixon trikimaillua dok premixua: sariema- le eta sarituen aurpegixak zuritzeko premisia.

Izan ere, Mark Twainek aspaldi esan juan siñesga- rritasuna birginitatia bezelakua dala, behin galdu ezker- o ezin dela berreskuratu.

“Bakiaren alde, nazioen arteko elkartasunaren alde eta gerren aur- ka lana egiñ daban norbaiti ematen jakon” aurtengo Bakiaren Nobel Sarixa... (erredoble hotsa): Europako Batasunarentzat. Toma! Ahiztu dittue NATOren bonbardaketa kriminalak eta bakezale honen negozio errentagarixenetakua dan arma-trafikua. 2013ko Estatu españiarreko gastu militarra: Egunero 79,17 milloi euro. Bai, e-gu-ne-ko!!!

“Zenbat diru xahutzen juek proiektu mamuetan itxuria ematiagaittik?”

Hemengo kasuan, azaldu al zittuan erakunde ofizialak (Udala, De- begesa, Uraren Euskal Agentzia) ibaixa garbitzera? Iragakixetan bes- terik ez. Donostiako Urgarden taldeko boluntariuak, bai, merezi debe- la sarixa, baiña badakik, dantzari hoberenak saririk ez! Zenbat diru xahutzen juek proiektu-mamuetan batzuen poltsikuak berotu eta itxu- ria ematiagaittik?

Ingurumena eta osasuna zaindu nahiko balebe, jarduera nekaga- rri, osasungaitz, kaltegarri eta arrisksuetan diharduten enpresen erregistroa begiratu biharko juen, euren obra faraonikuetatik hasitta. Gai hau ikertzen jardun daban lagun baten arabera, gehixenek ez jai- ttuek araudiaren premisak betetzen.

"KINTADA 1968"

1968

The Year that Changed the World

Urtarrilaren 26an bazkaria egingo dugu Elgoibarren 1968an jaiotako guztiok, 50 euro sartu: [3035.0007.21.0071125749](https://www.3035.0007.21.0071125749.com) (Euskadiko Kutxa - Caja Laboral)

Diruaren sarrera egiterakoan [izen-abizenak adierazi](#).

Elkartzeak merezi duelako..... ANIMA ZAITEZ!!!!!!!

Izena emateko azken eguna: [Urtarrilak 12](#)

Lekua zehaztu gabe.

kintada1968@hotmail.com

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855


Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Mendaro Ikastolako obrak

Mendaro Ikastolako kantxako estaldura ia bukatu dute. Epe guztiak gaudituta, ez da agindu zutena. Zergatik eta nola iritsi garen egoera honetara azaltzeak luze joko luke. Beraz, erraz ulertzeko moduko adibide gastronomiko bat erabiliko dugu:

Astebeteko aurrerapenarekin deitu dut jate-txera, bazkaltzeko legatza saltsa berdean jateko asmoa daukagula esanez. 25 euroko prezioa adostu dugu. Baina eguna iritsi, bazkaltzera azaldu eta agindutako legatza eskatu dugunean, sorbaldak jasoz erantzun didate ez dutela jeneroa erosi ere egin, legatza lonjan garestitxo dagoelako. Arrain merkeago batekin jartzeko eskatu diet, baina ezinezkoa dela, saltsa berdea prestatzeko denbora luzea behar dutela. Familiakoak gose daudela esan diet, eta ekartzeko arrainen bat mesedez. Azkenean, arratsaldeko 18:00ak jota, zer ekarriko eta *Pescanova* erako arrain makiltxoak ketchuparekin. Hori bai, notizia onak omen dituzte: "Gustura izango dira zure familiakoak, bakoitzari 20 euro besterik ez dizuet kobratuko eta...". Azkenean urdaila arrainez beteko dugu, bai, baina ez da gauza bera.

Imajinatzen al duzue beste edozein herritan horrelako estaldura bat XII. mendeko ermita baten ondoan? Hemendik hamar urtetara inor ez da lau hilabeteko atzerapenez oroituko, ez eta "aurreztutako" 83.000 euroetaz ere. Baina hortxe izango dugu hormigoi aurrefabrikatutako astakeria hori, eraikuntza enpresa batek Udalarri sartutako golaren oroigarri. Azalpen luzeagoak gogoko dituzuenontzat mendaronguraso.wordpress.com blogean jarri dugu sarrera luze bat gai honi buruz. (<http://wp.me/pJsvf-XB>)

Miren Vives eta Patxi Galarraga,
arkitektoak ☞

Espainiako bandera Mendaroko udaletxean

Espainiako Gobernuak EAEn daukan Delegaritzaren agindua bete behar izan du Mendaroko Udalak eta Espainiako bandera jarri, Ikurriñaren eta Europako eta herriko banderen ondoan. Espainiako Gobernuaren Delegaritzak hasiak zizuten Banderen Legea betearazteko tramite juridikoak, eta alferrik genuen helegitea jartzea, Auzi-

tegi Konstituzionalak berak Banderen Legea betetzera derrigortzen gaituelako. Horrenbestez, helegitea jarrita, abokatueta eta prokuradoreetan diru gehiago gastatu besterik ez genuen egingo.

Mendaroko Udala ☞

Eman goraintziak denei, Manolo

Nombres y apellidos: Manolo Rementería Gurruchaga; edad: 42; domicilio: Polígono 9, bloque A, 3D; profesion: Industrial; fecha de ingreso: 15 de Marzo de 1963; fecha de baja: ...

Registro de Socios izeneko bazkide-liburuan azaltzen diren datuak dira, Manolo. Bulegoko mahai baten gainean zegoen, eta Maitek gure artetik joan zarela esan zigunean, dena laga eta liburua hartu nuen eskuetan, zergatik egiten nuen oso ondo jakin gabe. Liburua zabaldu eta Elgoibarko Izarrako estreinako bazkidea zarela konturatu nintzen; eta elkarteko lehen presidentea ere zu izan zirela esan dit Felix Parapanek. Zure ondoren datoz, bazkideen zerrendan, Jesus Larrañaga, Sabin Arrieta, Jesus Mari Ansola, M. Arantzazu Arrieta, Begoña Andonegi eta beste 152 lagun. Zuek izan zireten Elgoibarko Izarraren lehen bazkideak. Zuek osatu zenuten estreinako Elgoibarko Izarra. Zuek ekin zenioten Elgoibar euskaldunagoa izateko herri-ahaleginari. "Erderiak ez itotzeko" hasi omen zireten, Parapani sarri entzun diogunez, eta Elgoibar herri euskalduna izateko oraindik asko geratzen bazaiгу ere, elgoibartarrok arnas berria hartu dugu elkarteak egindako lanari esker.

Honez gero luzatu dizute bostekoa hor goian topatu dituzun Elgoibarko Izarrako lagunek; (Bittor Arrieta ere zuekin izango da honezkerok). Izango duzue, bai, zer kontatua elkarri. Tarte bat hartzen duzunean, eman goraintziak denei, Manolo, eta esan datorren urteko martxoan 50 urte beteko dituela Elgoibarko Izarrak. Eta esan, baita ere, ez dugula sekula ahaztuko zuek atzo izan ziretelako garela gu gaur. Bazkide-liburua ixteratzen, baina zure baimena ematen badiguzu, hutsik lagako dugu *fecha de baja* jartzen duen laukitxoa eta Elgoibarko Izarrako estreinako bazkidea izaten segituko duzu; betiko.

Imanol Larrañaga, Elgoibarko Izarraren Zuzendaritza Batzordearen izenean ☞



Txalo bero bat Atxubiamakari, Zeraingo irteera antola-

tzeagatik: "Oso ondo pasatu genuen Zerainen, eta txalo bero bat eman nahi diegu Atxubiamakari arduradunei. Dena oso ondo irten zen, eta primeran pasatu genuen, bai umeek eta baita gurasoek ere. Hurrengoan beste irteera bat egiteko gogoz geratu gara".



Santa Zezilia egunaren harira antolatutako ekintzak oso politak izan dira: "Txalo bero bat merezi dute Santa Zezilia egunaren harira antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen guztiok. Berreziki, parrokiako abesbatzaren kontzertua nabarmenduko nuke, oso polita izan zelako."



Zuen kezak, galderak edo txalok bigaltzeko:
barren@elgoibar.koizarra.com 943 744 112

Ederki bizi dira (gizonezko) batzuk,
beste (emakumezko) batzuen kontura!
Zainketa duinak guztiontzat: gizon
nahiz emakumeontzat.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plena




berdintasuna**
egiteko asko

www.berdintasuna.tv

Gabonetako argiak iaz baino %10 merkeagoak izango dira

Abenduaren 5ean piztuko dituzte

Elgoibarko Udalak 22.670 euro gastatu ditu aurten Gabonetako argietan, iaz baino %10 gutxiago. Udaleko ordezkariak pozik daude gastua murriztu eta,aldi berean, "apaingarri kopurua gehitu eta kalitatea hobetu" dutelako. LED motako argiak erabiliko dituzte aurten, eta horri esker, argi gutxiago kontsumituko dutela jakinarazi dute udal arduradunek. Abenduaren 5ean piztuko dituzte argiak.



"Aurrekontu partehartzaileak" lantzeko bilera egin du Bilduk

BilduElgoibarrek "aurrekontu partehartzaileak" lantzeko bilera egin zuen astelehenean. Udalaren aurrekontuko partida garrantzitsuenak azaldu zituzten, eta dirua beste modu batean erabiltzeko hainbat proposamen egin zituzten. Hitzaldi gelan batu ziren ikusleen kezkek eta zalantzak argitu zituzten, eta proposamenak egiteko aukera eman zieten. Gai honi lotuta beste hiru bilera egingo dituztela aurreratu zuten Bilduko kideek, eta herritarren parte-hartzea eskatu zuten.

Harrera taldea aurkeztu dute, preso ohiei laguntzeko

Astelehenean aurkeztu zuten Harrera taldea, Kultur Etxeko sotoan. Preso ohiei eta haien senideei laguntzeko sortu dute elkarte, kartzelatik irteten direnean herrira itzulerara errazagoa izan dezaten. Dokumental bat eman zuten aurkezpen saioan, eta elkarteari buruzko azalpenak eskaini zituzten ondoren. Amaieran mokadutxo txiki bat egin zuten sotoan batu zirenek.

Pilarreko egoitzari lehentasunik ez ematea leporatu dio PSE-EEK Aldundiari

PSE-EE alderdiak Bilduren jarrera salatu du, Pilarreko zaharren egoitzaren proiektuari lehentasunik ematen ez diola uste duelako. Elgoibarko PSE-EEK mozio bat aurkeztu du, eta Udalari eskatu dio Foru Aldundiarekin "berehala" lotzeko akordioa gai honen inguruan. PSE-EEren iritziz zaharren egoitza egiteko beharra "handia" da, eta Gipuzkoako bizi itxaropena Europako luzeenetarikoa dela gogoratu du. Gainera, horrelako proiektuak eraikitzeak inbertsioak, lana eta aberastasuna sortzen dutela gaineratu dute PSE-EEko ordezkariak.



Giro ona eta jende ugari Kontsumo Arduratsuaren azokan

Hileko azken zapatuko feriarekin bat egin zuen Kontsumo Arduratsuaren azokak joan zen zapatuan, eta jende askok hartu zuen parte. Besteak beste, herriko ikastetxeek, Parrokiako misio taldeak, Emausek eta Miski elkarteak jarri zituzten saltokiak. Era berean, herriko baseritarren produktuek erosi ahal izan ziren. Era berean, bertako produktuekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izan zen, Sanlo eskubaloitaldeak jarri zuen txosnan. Horrez gain, Belaustegi jantetxeko Josu Mugertzak 250 pintxo prestatu zituen.



Izena **Manuel Rementeria**

Elgoibarko Izarra kultur elkartearen sorreran jardun zuen Manuel Rementeriak, eta bera izan zen elkarteko estreinako bazkidea eta presidentea. Hasiera-ko bi-hiru urteetan izan zen Rementeria elkarteko lehendakari, eta haren bidetik etorri ziren ondorengoak. Elgoibar euskaldunagoa izateko lan handia egin zuen, eta Ikastolaren sorreran ere ibili zen. Eguzki enpresa-ko bazkide sortzaileetako bat izan zen, Udaleko kultur zinegotzi kargua ere bete zuen, eta Caritas eta elizari oso lotuta bizi izan da ia azkenera arte. Azaroaren 26an hil zen Manuel Rementeria, 92 urte zituela.




Eguna **Azaroak 25**



Azaroaren 25ean, Emakumeen kontrako indarkeria salatzekeo egunean, hainbat herritarrek kontzentrazioa egin zuten Kalegoen plazan, Berdintasun Sailak deituta.

Irudia **Espainiako bandera Mendaron**

Espainiako bandera jarri dute Mendaroko udaletxean. Eraikinaren atzeko aldera ematen duen balkoian jarri dute, Europako banderaren, Ikurriñaren eta herriko banderaren ondoan. Bilduk agintzen du Mendaroko Udalean, eta ohar batean jakinarazi dute derrigorrean jarri dutela bandera, Espainiako Gobernuak EAerako daukan Delegaritzak hasita zituelako tramite juridikoak. "Alferrik genuen helegitea jartzea, Auzitegi Konstituzionalak berak Banderaren Legea betetzera derrigortzen gaituelako. Horrenbestez, helegitea jarrita, abokatueta eta prokuradoreetan diru gehiago gastatu besterik ez genuen egingo", zehaztu dute. Mendaroko EAJk, baina, kargu hartu die. EAJk salatu du salaketa bat egon aurretik jarri dutela Espainiako bandera: "Ezker abertzaleak gai hau erabili izan du beste guztiok espainolak garelako esateko, eta gogoratu besterik ez dago Bilboko Udaletxean jarri zutenean egin zuten mani-



festazioa. Guk dakigunez, Espainiako Gobernuaren Delegaritzatik bidalitako errekerimenduak baino ez dira iritsi udaletxera, eta gai honetan EAJ epaitegiatar joatearen aldekoa da. Sententzia batek behartu dezala alkatea edo dagokion arduradun instituzionala bandera jartzea", nabarmendu dute.

Abenduaren 11n hasiko da Jubilatuen Astea

Abenduaren 11n hasiko da Jubilatuen Astea, eta horren harira, hilaren 16ra arteko egitaraua antolatu du Jubilatuen Biltokiak. Besteak beste, txokolate jana egingo dute, Gabonetako otarrak zozketatuko dituzte, eta 80 urtetik gorakoentzako bazkari berezia egingo dute. Hilaren 13an izango da bazkaria, eta egun horretan 2012an urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omenduko dituzte. Bazkarian parte hartzeko izena eman behar da.

Korrikari laguntzeko materiala salgai

Martxoan izango den KORRIKA 18ri laguntzeko arropa jarri dute AEK euskaltegian, (Plaza Txikian) abenduaren 10etik 19ra. Interesatuek AEK euskaltegira jo dezakete, astelehenetik ostiralera. Bertan materiala ikusi, probatu eta erosi ahal izango dute.

Rikardo Garatek irabazi du Errosario jaietako errifaren saria

Errosario kaleko dendariak egin dute jaietako errifaren zozketa, eta Rikardo Garate izan da irabazlea. 500 euroko erosketa txeketa jaso du Garatek, Errosario kaleko establezimenduetan gastatzeko. Kaleko denda eta taberna guztiak hartu dute parte errifan.



“Guinness errekorra ontzen saiatuko naiz Mendaron”

Intxaurrekin ipurdiarekin apurtzeagatik, mundu osoan egin da ezaguna Juan Carlos Diez Soto (Ormaiztegi, 1968). Kontzezio Azoka egunean erakustaldia eskainiko du 14:00etan, udaletxeko plazan.

JUAN CARLOS DIEZ SOTO

Zer nolako erakustaldia egingo duzu Mendaron?

Hiru saio egingo ditut. Lehenengo, intxaurrekin, hurrak, pistatxoak... apurtuko ditut, eta gero, errekorra ontzen saiatu aurretik, intxaurrekin apurtuko ditut, baina eskuakin lurra ikutu gabe. Minutuan 38 intxaurrekin apurtuta dauzkat eskuakin lurrik ikutu gabe, eta momentuz inork ez du hori ontzerik lortu. Hori eginda gero, Guinness errekorra ontzen saiatuko naiz. Ez da ofiziala izango, jakina, epailerik ez delako egongo, baina saiatu, saiatuko naiz. Italiako *Lo show dei record* telebista saioan ondu nuen errekorra eskuak lurrean jarrita. Minutu batean 76 intxaurrekin apurtu nituen (bigarren sailkatu zenak 67 apurtu zituen).

Ipurdiarekin hausten dituzu zuk intxaurrekin, baina zein parterekin?

Nik iskiorekin apurtzen ditut, kokzit edo ipurtxuntxurakin apurtu ordez. Italian bigarren gelditu zenak ipurdiaren beste alde batekin jotzen die, eta han oso gaizki amaitu zuen. Ospitalera eta guzti eraman behar izan zuten.

Noiz eta nola ekin zenion intxaurrekin ipurdiarekin apurtzeari?

18 bat urte nituela, sagardotegian, erdi txantxetan. Kazetariak eta telebista munduan dabilzanak dauzkat koadrilan eta haiekin animatuta eman nuen plazara saltoa. Bideo gat grabatu eta TVE1eko *Qué apostamos* saiora bidali genuen. Handik ez zidaten erantzun, baina gerora Antena3tik deitu zidaten, Juan



Ramon Lucasen saiotik. Hantxe agertu nintzen lehenengoz telebistan, eta batetik eta bestetik deika hasi zitzaizkidan gero.

Eta Guinnesserako izena eman zenuen gero. Nolatan animatu zinen?

Ez dakit ba. Bidali genuen bideoa eta Madrilera deitu ninduten. Errekorra ezarri nuen han: minutuan 38 intxaurrekin apurtu nituen. Milanen errepikatu nuen gero. Handik gutxira, baina, japoniar batek ondu zuen errekor hori, eta ondoren, frantziar batek. Baina berezitasun bat bada. Nik eskuak lurrean jarri gabe egin nuen, eta haiek eskuak lurrean jarrita. Alde handia dago. Nik neuk garrantzia handiagoa ematen diot orain hiru urte Milanen ezarri nuen errekorra, askoz meritu handiagoa duela iruditzen zaidalako. Bestea gutxieneko prestakuntza daukan batek egin dezake, azkar ibiliz gero. Aldea nabarmena da. Baina haiek eskuak erabiltzen hasi zirenez, neu ere hasi nintzen.

Pentsatzen nuen Guinness errekorreko baldintza batzuk bete behar izaten zirela.

Bai, eta hala da, baina horren inguruan ez zuen ezer esaten, eta aukera hori ballatu zuten haiek. Zehaztuta zeuden baldintzak hauetxe ziren: intxaurrekin aldaera jakin batekoak izan behar zirela, intxaurrekin batetik beste-

ra 20 zentimetro egon behar zirela, ipurdiarekin hautsi behar zirela eta prakek ezin zutela babesgarririk izan. Praka bakeroak izan behar ziren derrigor.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Belaunetan indar handia behar da, eta flexioak-eta egiten ditut. Ez dezala inork probatu, saiatu den ezagun batek lotailu gurutzatuak apurtu eta zisko egin dituelako belaunak. Saioan egon behar da, bai. Hasi nintzenean, 18 urterekin, beroketak ere ez nituen egiten, baina gaur bai.

Zelako praktikak erabiltzen dituzu zuk?

Saioetan bakeroak beti. Entrenamenduetan elastikoekin ere apurtu izan ditut intxaurrekin, baina arriskutsua da intxaurrekin oskolak zauria egin diezazukelako ipurdian. Egia da praka bakeroa ez dela jantzirik erosoena makurtzeko-eta, baina bai segurua.

Zer eman dizu zuri zaletasun honek?

Besteak beste, bidaiatzeko aukera. Astebete inguruko egonaldiak egin ditut kanpoan, eta azkenean minutu bakarreko lana da egiten dudana. Proporzioan, lanean egiten dudana denbora eta kobratzen dudana aintzat hartuta, Ronaldok berak baino gehiago irabazten dut. Txantxetan hasi ginen, baina etekina ateratzen jakin dugu.

Kontzezio Eguna ospatuko dute bihar zortzi, abenduaren 8an, Mendaron

Azoka, herri kirolak eta trikitia izango dira eguneko osagai nagusiak

Kontzezio Eguna da bihar zortzi, abenduaren 8an; egun handia mendarorrentzako. Azoka eguna dute, eta goizean goizetik izango dute herrian zertaz gozatua. 9:30ean zabalduko dute barazki eta ganadu azoka, eta urtero legez, baserriko produkturik onenak dastatzeko eta erosteko aukera izango da bertan. 11:00ak aldera, berriz, sagardo lehiaketari emango diote hasiera.

Zalantzarik gabe, baina, eguerdi aldera batuko da jende gehien udaletxeko plazan. Izan ere, 12:00etan Mendaroko trikiti dantza eskolakoez urtean zehar ikasitakoaren era-

kustaldi bat egingo dute plazan, urteroko ka-lejiraren ostean. Ondoren, 12:30ak aldera, Berastegiko artisauek batek egurrezko irudiak sortuko ditu, motozerrarekin, eta ordu horretan bertan, nahi dutenek gurdi batera igo eta herrian zehar itzuli bat egiteko aukera izango dute. Izetako idi pare batek tira egingo dio gurdiari, eta Santa Ana jaietan trenak bete zuen funtzioa beteko du gurdiak.

14:00etan Juan Carlos Diez Soto ormaiztegiarra munduko Guinness errekorra ontzen saiatuko da plazan. Intxaurrekin ipurdiarekin apurtzeagatik egin da ezaguna Diez Soto, eta minutuan 76 intxaurrekin

baino gehiago apurtzen saiatuko da. Eguerdira artekoa sari banaketarekin amaituko dute.

Gizon probak

Arratsalderako gizon probak antolatu ditu Mendaroko Udalak. Mendaroko gazte talde bat estreinakoz ariko da gizon probetan, 800 kiloko harriarekin. Berrobioko taldearen kontra lehiatuko dira, Gipuzkoako txapeldunen kontra. Ikuskizuna ziurtatua dago beraz. Gizon probak amaitu eta bat, erromeria hasiko da frontoian, Kupela taldearekin.

euskaraz bizi nahi dut

Kontseiluak deituta, manifestazioa egingo da bihar Donostian 'Euskaraz bizi nahi dut' lelopean, eta Elgoibarko hainbat gizarte eragilek bat egin dute deialdi horrekin. Joan zen asteko BARRENEKO alean atxikimendua adierazi zutenei galdera egin diegu: Zergatik bizi nahi duzu euskaraz?



C.D. Elgoibar. Iban Quintana: "Euskal Herrian euskara gure hizkuntza delako, eta guk ez badugu euskaraz egiten, denborarekin galdu egingo delako".



Elgoibarko Udalaren Euskara eta Kultura batzordea. Ane Beitia: "Gure hizkuntza delako eta euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea dugulako. Horregatik, egunero, lanean, kalean, aisialdian, Interneten, kirolean, administrazioan... esparru guztietan euskaraz bizi nahi dugu, eta horrela izateko dugun eskubidea gauzatu nahi dugu".



Sanlo. Cesar Arriola: "Euskarak, gure hizkuntza izanik, toki naturala izan behar duela, "eguneroko" bizitzan. Eta egunerokotasuna ez da etxera mugatzen. Eguneroko arlo guztietan izan behar da, modu normal batean, inongo traba edo oztoporik gabe. Normala hori izan behar delako".



AEK. Amaia Larrañaga: "Neure parte bat delako euskara, bera gabe ezin naizelako natural bizi, eta nik natural bizi nahi dudalako".



Gazte Asanblada. Aritz Arrieta: "Gure herriaren (Euskara Herriaren) ondare bereizgarriena eta garrantzitsuena delako, eta mantentzea eta transmisioa bermatzea gure betebeharrak delako; euskalduna naizelako, gure ondare kulturala maite dudalako... Giro euskaldun baten bizitza tokatu zait etxean zein familian, baina eremu hortatik kanpo euskaraz bizitza ezinezkoa da gaur egun. Etxean euskara jaso ez duen herritarrak ez du euskara ikasteko inolako beharrik, ezta dakienak erabili beharrik ere, belaunaldien arteko transmisioa etenik. Nere ondorengoei etxean euskaraz bizitzeko gain, kalean euskaraz bizitzeko aukera ematea nahiko nieke, eta horretarako, euskarak euskaldunon ahotan beharko luke. Hurrengo belaunaldien ezagutza gaur egun ziurtatuta daukagu, baina erabilerarik gabe bitri-nako hizkuntza batean geratuko zaigu euskara. Bi astean behin hizkuntza bat galtzen da, beste batek menperatuta. Nik euskararen aldeko hautua egin dut".



EHBildu. Jose Luis Ibartzabal: "Nire bizitza proiektuan euskara osagai bereizteza delako".



IMH. Roberto Altzerreka. Euskara batzordekidea: "Euskara gu ez bada, ez da ezer. Gu garela. Gurea delako".



Haritz dantza taldea. Ane Astigarraga: "Euskaraz bizi nahi dugu euskaldunak garelako. Euskal dantza tradizionalak dantzatzen ditugu eta hori euskararik gabe egitea ulergaitza egiten zaigu. Euskararik gabe galduta sentituko ginatke, musikarik gabe galduta sentitzen garen modu berean. Euskarak egiten gaituenez euskaldun, segi mingaina dantzatzen!".



Elgoibarko Udal Euskaltegia. Susana Gurrutxaga: "Geure hizkuntzan bizitzeko eskubidea daukagulako inongo trabarik gabe".




Elgoibar Ikastola. Edurne Bilbao Ikastolako lehenakaria: "Elgoibarren ere euskaraz bizitza aldarri izatetik errealitate izaterako bidean lanean dihardun erakundea garelako".



Morkaiko. Andoitz Agirregomezkorta: "Morkaiko Mendizale Elkarte sorreratik dago euskararekin lotuta. Gerra zibilaren ostean mendi irteerak erabiltzen ziren euskaraz aritzeko eta horien inguruan sortu zen Elkarte. Gaur egun euskara da Morkaikoren hizkuntza naturala eta inguruko artean ere hala izatea nahi dugu: hizkuntza naturala".



EA. Miren Arrate Arrieta: "Euskaraz bizi nahi dut euskara delako nire hizkuntza. Umetatik jaso nuena da, eta oso eroso sentitzen naiz euskaraz mintzatzeko. Uste dut jendea kontzientziatu egin behar dugula, dakitenek erabil dezaten. Ea horrelako ekintzekin lortzen dugun".



MEKA Lanbide Eskola. Mariasun Larrañaga: “Familia euskaldun eta euskaltzale batean jaino nintzelako eta euskarra maitatzen erakutsi zidatelako. Euskaraz bizi naizelako, eta hurrengo belaunaldiak ere halaxe bizitzea gustatuko litzaidakelako.



Elgoibarko ezker abertzalea. Iñaki Bengoetxea: Euskarak munduari begiratze-ko beste ikuspuntu bat ematen digulako, ez hobea eta ez eskasagoa, beste bat. Gurea.



Iñaki Konde, Elgoibarko Izarrako presidentea: “Galderan bertan dago, nire ustez, arazoaren muina. Zer dela eta galde-

tzen diogu euskaldun bati zergatik bizi nahi duen bere hizkuntzan? 2000 urtetik gora daramagu euskaldunok mundu honetan, eta galdera horrek zentzua galtzen duenean ziurtatuko dugu gure etorkizuna. Bien bitartean, Euskal Herrian euskaraz bizitzeko bideak zabaltzen joan beharko dugu, euskaraz bizi nahi dugunon aukerak gehitzeko, eta, batez ere, gaur euskaraz bizi ez direnak euskarara erakartzeko”.



Herri Eskola. Ander Zubizarreta: “Aittitta eta amamek eman zigutelako eta geuk ere, gure ondorengoen eskuetan jarri nahi dugulako aberastasun handi hau”.



Elgoibar Arreiturre Institutua. Imanol Lopez: “Nire ama-hizkuntza izanik, bihotzak horrela eskatzen didalako eta euskarak konfiantza ematen didalako, euskaraz nahi dut bizi”.

DanobatGroupek ere bat egin du Euskararen Egunarekin

Joan zen barixakuan hasi zituzten Danobateko langileek Euskararen Egunaren harira antolatutako ekintzak. Asteazken zehar pilota txapelketa jokatu zuten Ikastolako frontoian, eta finala barixakuan izan zuten. Beñat Unanue eta Urtzi Mentxaka nagusitu ziren. Ondoren, trikiti-poteoan irteten ziren kalera, Iban, Aloña eta Leando soinu-joleekin, eta afaltzeko elkartu ziren gero Gure-bide gastronomia elkartearekin. Urtero legez, bertso afaria egin zuten. Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia aritu ziren aurten bertsoetan, eta giro aparta jarri zutelako jakinarazi dute afarian elkartu zirenekin.

Ez dira hor bukatzen, baina, Euskararen Egunaren harira antolatutako ekintzak. Izan ere, azken urteotan egin bezala, denborapasak prestatu dituzte Danobat-



Group-ek plantan dituen herrietako eskoletako umeentzako eta bazkideen seme-alabentzako. Lehiaketa bat da berez, eta parte hartzen duten guztien artean astelehenean 11 bizikleta zozketatuko dituzte. Era berean, irabazleek eta haien guraso eta irakasleek enpresa bisitatzeko aukera izango dute. Eguna ez dute zehaztu oraindik, baina abenduko jai-zubiaren ostean izango dela aurreratu dute.

Herri Eskolak dantzaldia antolatu du astelehenerako Egan taldeko Xabier Saldias eta Idoia Uralderekin

Ikastetxetik kalera irtengo dira aurten Herri Eskolako haur eta irakasleak Euskararen Eguna ospatzera. Kalejiran irtengo dira 9:15ak aldera eta erdigunean zehar ibiliko dira, kantuan: King-kong, Lorituanekeo aldapa, Pedro Migel Urruzuno, Bernardo Ezenarro, Maala, San Frantzisko, San Bartolome, Foruen enparantza eta Lekueder. 10:15ak aldera batuko dira Lekuederreko karpan, eta ordubetan inguruko dantzaldia egingo dute, Egan taldeko Xabier Saldias eta Idoia Uralderekin. Erromeria antzeko bat izango da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Euskaraz bizi nahi dut ‘flashmob’-a grabatuko dute Mendaron

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Mendaroko Udalak eta Euskara Taldeak ‘flashmob’-a antolatu dute astelehenerako. Arratsaldeko 18:00ak aldera grabatuko dute plazan, eta grabaziorako ahalik eta jende gehien batu nahi dute antolatzaileek. Esne Beltza taldearen *Euskaraz bizi nahi dut* abestiarentzako koreografia “erraz” bat sortu die okasiorako, eta huraxe dantzatzeko dute. Grabazioa 18:00ak inguruan hasiko da, baina ordubetan aurretik hasiko dituzte entseguak. Antolatzaileek argi laga dute parte hartzeko ez dela ezinbestekoa dantzari ona izatea: “Euskaraz bizi nahi dute guztiak daude gonbidatuta”.

Aurrez, ikastolakoek Euskararen Eguneko jaialdia egingo dute, urtero legez. 15:30ean hasiko dute jaialdia, eta antolatzaileek aurreratu dute ordubetan inguruko ekitaldia izango dela. Euskal kirolak gaia emanda, eurek sortu dituzten bertsoak abestuko dituzte ikasleek, eta Arno Guraso Elkarteak gaztainera erreak banatuko dituzte.

ALBERTO ALEGRIA

Norbera elkarteko orientatzailea

Gurasoentzako kafe-tertuliak antolatu ditu Gaztelekuak, eta lehenengo saioan nerabeek alkohola kontsumitzeko dituzten ohiturei buruz jardungo dute. Norbera elkarteko kideek gidatuko dute solasaldia, eta gurasoen kezkak eta zalantzak argituko dituzte. Abenduaren 15ean izango da saioa, 11:00etatik aurrera.



“Mozkortzeari errespetua galdu zaiola esango nuke”

Gazteek alkohola kontsumitzeko duten ohiturei buruz egingo duzue berba. Zenbat urterekin hasten dira alkohola kontsumitzen?

Sarritan entzun dugu gero eta gazteago hasten direla alkohola kontsumitzen, baina ez da egia. Azkenaldian egin diren ikerketen arabera, joera berbera mantentzen da. 1994tik hona, 13,5 urterekin hasten dira gutxi gorabehera alkohola kontsumitzen, eta ez dago desberdintasunik nesken eta mutilen ohituren artean. Hala ere, gero eta gazteago hasten dira gauzez irteten. Lehen 15-16 urterekin hasten ziren, eta gaur egun 13 urteko gazte-txoak ere ikusten dira gauzez.

Alkohola kontsumitzeko ohiturak aldatu egin dira?

Oro har, gazteen artean alkohola gero eta gutxiago kontsumitzen da. Muturreko bi joera ditugu: batetik, alkoholik edaten ez duten gazte gehiago dago, baina bestetik, alkohol asko kontsumitzen duten gazteen multzoa ere handitu egin da. Alkohola presente dago gure kulturen, eta, nolabait esateko, mozkortzeari errespetua galdu zaiola uste dut. Javier Elzo soziologoak aspaldi esan zuen lehenengo eta oraingo belaunaldien artean mozkortze-ko kontu hori aldatu egin dela. Lehen tabernaz taberna ibiltzen ginen parrandan, edaten, eta konturatzera behar genuena bai-

no gehiago edan genuela ohartzen ginen. Gaur egun, ordea, parrandan joan aurretik edaten dute gazteek eta tabernetara joaterako mozkortzen dira. Lehen parrandaren ondorio izaten zen mozkorra, eta gehienetan ez zen izaten nahita bilatutakoa. Gaur egun kontzienteki mozkortzen dira, parranda hasi aurretik.

Izan daiteke tabernetan ibiltzeko dirurik ez dutelako?

Egia da 'botiloia' egitea tabernaz taberna ibiltzea baino merkeagoa dela, baina ez dut uste arrazoi ekonomiko denik. Lehenengo belaunaldiek diru gutxiago zeukaten, eta ez zuten horrelakorik egiten. Arazoa pentsakeran dago; hau da, parrandan irteteko mozkortu behar horretan.

Horrelako egoeren aurrean, zer egin daiteke?

Horri erantzutea ez da erraza. Lehenik eta behin, mozkortzea ezin dugu normaltasunez ikusi. Adibidez, 70eko hamarkadan 15 urteko gazte bat kalean mozkortuta ikusteak alarma soziala pizten zuen, baina gaur egun normaltzat hartzen da. Pentsakera hori aldatu behar dugu. Ez da egia gazte guztiek edaten dutela eta denak mozkortzen direla, beraz, mozkortzearen kontu hori ezin dugu normaltzat hartu. Gurasoek zentzuz jokatu be-

har dute, eta ahal duten heinean lagundu behar diete nerabeei.

Alkohola ondo ikusita dagoen kulturen bizi gara, eta askok uste dute alkohola ez dela bestelako drogak bezain txarra. Zein arrisku ditu horrek?

Alkoholaren kontsumoa oso zabaldua dago. Ez dut esan nahi jendeak asko edaten duela, baizik eta jende askok edaten duela. Gainera, belaunaldiz belaunaldi datorren ohitura da; gure aiton-amonek eta gurasoek ere edaten zuten eta geuk ere bai. Substantzia kontsumitzea baino arriskutsuagoa da substantzia hori kontsumitzeko modua. Ez dut drogen arteko konparazioa egin nahi, eta ez dut esango bata bestea baino arriskutsuagoa dela, baina droga horiek kontsumitzeko ohitura da arriskutsuena.

Egoibarko Udalak gazteen artean alkoholaren kontsumoa murrizteko neurriak hartu ditu. Debeku eta isunak horrelako gaietan laguntzen dutela iruditzen zaizu?

Substantzia bat zenbat eta kontrolatuago egon, gutxiago kontsumitzen da. Hori horrela da, eta hori egiaztatzen duten datuak badaude. Gai horren atzean beste eztabaida bat dago, baina, egia da debekatutako drogak gutxiago kontsumitzen direla. Hala ere, ez dut esan nahi debekuen alde nagoenik.

ezkontza gehigarria

Ezkontza egunerako soineko egokiena aukeratzeko orduan, onena norbere gorputzari erreparatzea dela esaten dute diseinatzaile eta moda adituek. Modari gehiegi erreparatu gabe, norberari ondoen datorkion soinekoa aukeratu behar da, norbere gorputzera ondoen egokitzen dena. Gure alde onak nabarmendu eta ederrago egingo gaituena, alegia.



AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

HIDRODEPURAZIOA
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa

KANTABRIA
Jatetxea



EZKONTZAK | BATAIOAK | JAUNARTZEAK

Arrate gaina, 4
279 posta-kutxa
20600 EIBAR
Tel.: 943 121 262

www.kantabriajatetxea.com



RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

Aukeratu zure neurriko soinekoa



Gorputz perfektua gutxi batzuek soilik daukate; eta denok daukagu gure ustez zuzendu beharrekoak. Horregatik, ezinbestekoa da ezkontza egunerako soinekoa ondo aukeratzea. Gorputzaren indarguneak sustatu eta ahulguneak disimulatzea da garrantzitsua.

Soinekoa ondo aukeratzeko gure gorputzaren formak eta bolumenak oso ondo ezagutzea komeni da. Zenbat eta forma edo bolumen gehiago eduki, soinekoa arinagoa izan behar da. Ez da komeni gorputzera erabat itsatsiko den soinekoa aukeratzea, baizik eta gorputzera mugimenduen segida izango den soinekoa.

Koloreari dagokionean, diskrezioa da garrantzitsua. Ez oso zuria eta ezta oso distiratsua ere. Enkaje gutxi eta soineko sinplea izatea da egokiena.

Era berean, beso sendoak dituzten emakumeentzako ez da gomendagarria tirantedun soinekoa aukeratzea. Manga motza duen soinekoa askoz




Jasone
Zerbaitz drafteak



- Lan komertzialak
- Irudi korporatiboa
- Katalogoak, liburuak
- Kartelak, zori-ogurrak
- Jeunartze orlarriak
- Egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala
- BANNERRAK

Ezkontza gonbidapenak

San Bartolome, 15 - behea • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel./Faxa: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com • www.jasonesg.com

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



AGURTZANE
c.b.

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ileapaindegia

Maria Urizar

- Ileapaindegia
- Solariuma

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
mariaileapaindegia@hotmail.com



Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Ofset
Digitalean

Ezkontza gonbidapenak
Harta ogurrak
Gusta txartelak
Kartelak - etiketak
e.b.

Fotokopiak

Kolortan
Txanbeltsak

Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagasi@euskalnet.net



HAIR'S

ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 531 279

ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €





hobeto geratzen da horrelakoetan, eta bestela, tul oihalarekin eginiko txaketak ere oso egokiak dira soinekoaren gainetik janzteko. Beti ere, gorputzera asko pegatzen ez den ohiala aukeratzea da garrantzitsuena, besoek erabateko mugimendua izan dezaten.

Bularralde oparoa duten emakumeentzako piko formako eskoteak dira egokienak, eta ez da komeni zonalde horretan apaingarririk jartzea. Era berean, tripa handi samarra dutenentzat gerrira markatu eta gona korola forman irtetea da aukera onenetariko bat. Mokorra handia dutenentzako modelo drapeatuak gomendatzen dituzte adituek.

Gomendio hauek jarraituz erraza da norberaren gorputzari egokien doakion soinekoa aukeratzea, baina gogoratu, egun horretan distira egiteko aurpegiko irribarrea dela osagairik garrantzitsuena.



ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☎ 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Etorri
eta
aukeratu.*

Kala
LORADENDA

San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516

Ezkontzeko prest!

Kalitatea sukaldean
Jon Odriozola chef-a

Ordutegi zabala
berandura arte



Arreta pertsonalizatua
Zure egun berezia

Tel. 943 202 727 Faxa. 943 208 991
Arrate auzoa -EIBAR-



HOTELA
JATETXEA

conecta@hotelkrabelin.com

www.hotelkrabelin.com



JATETXEA

Loiolako Inazio Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18
www.hotelloiola.com
E-posta: loiola@hotelloiola.com



BIKOTEEN GUSTURA EGINDAKO EZKONTZA MENUAK
Luntxa terrazan
Ezkonberriak arropaz aldatzeko logelak
35 logela, telebista, WI-FI eta bainugelako osagarri guztiekin

Goza ezazu gure terraza berriaz!
Plater kombinatuak, kaxoletxoak, ogibartekoak ...
Eguneko menua: 13 €



ESKERTZA

PAKO ARRIZABALAGA URBIETA

2012ko azaroaren 24an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

AMELIA CID CASTRO

*Urtebete pasa da,
baina gure ondoan jarraitzen duzu,
gure bihotzetan.*



2011ko abenduaren 3an hil zen, 64 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
astelehenean, abenduak 3, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

ESKERTZA



MANUEL REMENTERIA GURRUTXAGA

*Zu izan zinelako gara gu,
eta zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak,
bizitza honetan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak.
Eta gaur negar egin badugu ere,
bihar,
zutaz oroitzean,
poza loratuko da gure aurpegietan.*

Etxekoak

2012ko azaroaren 26an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Jarri ezazu zure publizitatea
gabonetako **BARREN** astekarian
edo **www.elgoiBARREN.net**
webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Tel.: 943 743 703



IÑAKI FIGUEIREDO

Terapeuta

Mina arintzeko teknikei buruzko ikastaroa eskainiko du Iñaki Figueiredok abenduan. EFT teknikan oinarritutako sendabideak azalduko ditu, hau da, emozioak askatzeko teknikan oinarritutakoak. Orratzik gabeko akupunturaren teknika erabiltzen du, eta gorputzeko leku jakin batzuetan emandako kolpe txikien bidez arintzen du mina. Defibel elkarteak antolatuta, hiru saio emango ditu: hilaren 5ean, 12an eta 19an. Doako ikastaroa da, eta edozein herritarrek hartu dezake parte.



“Emozio negatiboek eragiten dute mina, eta emozio horiek askatu egin behar dira”

Mina arintzeko teknikei buruzko tailerra emango duzu. Zertan datza?

Defibel (Fibromialgia eta astenia kronikoaren Debabarreneko elkar-tea) elkar-tearen laguntzaz antolatu dugu tailerra. Errekonozimendu gutxi gaixotasunak dira horiek, min handia eragiten duten arren, oso zaila delako min hori neurtzea. Baina gaixotasun hori pairatzen dutenek zailtasunak dituzte eguneroko bizitzan aurrera egiteko. Nik eskaintzen dudan teknikari esker, mina asko arintzen da, eta gaixoei hobekuntza handiak igartzen dituzte.

Zein da teknika horren oinarria?

Medikuntza txinatarrean oinarritzen da; akupuntura. Medikuntza txinatarrek bost mila urte baino gehiago ditu. Gorputzeko energia puntuen mapa osatuta dago, eta orratzen bidez puntu horietan ziztatuz energia orekatu egiten da, gorputz osoaren egoera orekatzeko. EFT (*Emotional Freedom Techniques*) teknika akupuntura oinarritzen da, baina ez dugu orratzik erabiltzen. Emozioak askatzeko teknikak dira, emozio negatiboak, alegia. Emozio negatiboek min fisikoa eragin dezakete eta askatu egin behar dira. *Tapping* teknika erabiltzen dugu: gorputzeko atal zehatz batzuetan kolpe txiki batzuk eman eta esaldi konkretu batzuk esatean datza. Oso garrantzitsua da teknika aplikatzeko unean min horretan kontzentratuta egotea. Gorputzeko hamabi-hamabost atal lantzen dira.

Zein onura lortu daitezke teknika horren bidez?

Antsietatea eta estresa arintzeko oso egokia da, traumak edo fobiak gainditzeko, erretzeari lagatzeko, jakeka edo migrañak kentzeko, jaioberrien kolikoak sendatzeko... Teknika honekin gaitza arindu edo betirako sendatzen da. Medikamentuek sintomak kentzen dituzte, baina gaitza berriz itzultzen da.

Nola hasi zinen teknika hau lantzen?

Orain dela 25 urte inguru hasi nintzen terapia mota desberdinak lantzen, baina EFT teknika hau kasualitatez aurkitu nuela esan daiteke. 2004an auto istripua eduki nuen, eta haren ondorioz, gorputzeko min handia neukan. Estatu Batuetan neuzkan lagun batzuen bidez EFT teknikaren berri izan nuen, eta neure buruarekin aplikatzen hasi nintzen. Hasieran eszeptiko samar nengoen gai honekin, eta hobekuntzak igarri arren, ez nuen uste teknika horregatik zenik. Baina egunetik egunera hobekuntza nabarmenak igarri nituen, eta botikarik hartu gabe mina izugarri gutxitzen zela nabaritu nuen. Orduan hasi nintzen formazioa jasotzen.

Horrelako tekniketan sinisten ez dutenei, zer esango zenieke?

Nik neuk ere hasieran ez nituela sinisten, baina benetan funtzionatzen dutela ikusi dut. Bost urtez nire buruari aplikatu nion, eta azken hiru urteotan hasi naiz besteengan aplikatzen. Jende askori lagundu diot, eta emaitza oso onak lortu izan ditut. Sinisten ez duten horiei probatzeko esango nieke, eta baloratu dezatela gero. Medikuei eta psikologoek ere gero eta gehiago aplikatzen dituzte horrelako teknikak.

Edonork hartu dezake parte tailer horietan?

Bai. Tailerrean parte hartzeko ez da minez etorri behar, baina egia da hobekuntza handiena minez datorrenak igarriko duela. Norbait buruko minarekin badator, berehala igarriko du hobekuntza, baina une horretan minik ez badauka ere, arazoaren jatorrira joango gara eta mina betirako desagertuko da. Emozio negatiboek eragiten dute mina normalean, eta horiek askatu egin behar dira mina arintzeko. Gorputzean energia desoreka baldin badago, mina agertzen da. Tailerra doan eskainiko dut, eta oso interesgarria izango da. Teknika aplikatzeko erraza da, eta behin ikasita norberak aplikatu dezake bere buruan.

Iñigo Lariz eta Nerea Amilibia nagusi Alkortako Igoeran

Hogeita bat lagunek parte hartu zuten zapatuan Alkortako Igoeran, eta Iñigo Lariz elgoibartarra eta Nerea Amilibia aiarra gailendu ziren. Larizek 21:07ko denboran osatu zuen ibilbidea (4,7 kilometroko maldan gora), eta Amilibiak 27:45eko denboran. Josu Uriarte markinarra izan zen bigarrena, Larizengandik 24 segundora (21:31), eta Jon Larrañaga mendaroarra hirugarrena (23:33). Haize ufada bortitzek ez zieten lar lagundu korrikalariei, eta inork ez zuen Iñigo Lazkanok iaz jarritako marka ontzerik lortu (20:24). Argazki gehiago eta sailkapen osoa www.ElgoiBAREN.net helbidean.



Josu Uriarte markinarra bigarren sailkatu zen.



Iñigo Lariz, sasoi betean.



Ezkerreko argazkian, Jon Larrañaga eta Loren Galdeano, eta eskubian, Miren Gallastegi.

Abenduaren 11tik 17ra jokatuko dute Nazioarteko Xake Txapelketa

Euskal Herriko eta Nazioarteko hamar xakelarik hartuko dute parte

A benduaren 11n hasiko da Nazioarteko Xake Txapelketaren XXII. edizioa, eta hilaren 17an amaituko da. Aurten, Euskal Herriko eta Nazioarteko hamar xakelarik hartuko dute parte. Horien artean aipatzekoak dira Jaime Santos, 16 urtez azpiko Espainiako txapelduna eta Paul Velten, Frantziako txapelduna jubenetan. Era berean, azken bi urteotan Elgoibarko Xake Txapelketa irabazi duen Azer Mirzoev azerbaiandarra ere gurean izango da. Aipatzekoa da, bestalde, Elgoibarren sei aldiz irabazi duen Oleg Korneev errusiarra aurten ez dela etorriko.

Partidak udaletxeko pleno aretoan jokatuko dira, bederatzitik txandatan. 17:00etan hasiko dira partidak, eta gehienez 90 minutukoak izango dira. Jokalari bakoitzak 30 segundo izango ditu pieza bakoitza mugitzeko.

Era berean, Eskolarteko Xake Txapelketa ere jokatuko dute, abenduaren 15ean hasita, udaletxean bertan.



Kirol Sariak banatuko dituzte abenduaren 19an

Abenduaren 19an banatuko dituzte Kirol Federatuaren sariak. 2012an kirol bakoitzean nabarmendu den kirolari edo ardura-dunei errekonozimendua erakusteko baliatuko dituzte sariok. 19:00etan hasiko da sari banaketa, Musika Eskolako auditorioan.

Bizibike
Santa Ana kalea, 12, behea, ezk.

Irekiera!!
abenduak 14
18,30ean

Bizikletarako behar duzun guztia zure esku!!
BTT bizikletak, errepiderako bizikletak, umeen bizikletak,
arropa, bizikletarako osagarriak...

Iker eta Maite Maiora nabarmendu dira Donostiako maratoian

Elgoibar eta Mendaroko 14 lagunek egin dute maratoia

Domekan jokatu zen Donostiako Maratoia. Guztira, 2.613 korrikalarik lortu zuten Donostiako maratoia amaitzea, tartean bost mendaroez eta bederlatzi elgoibartarrek. Gure ordezkarien artean, Iker eta Maite Maiora anai-arrebak nabarmendu ziren: Iker 13. postuan sailkatu zen 2:34:40 denborarekin eta, Maite, berriaz, zortzigarren izan zen emakumezkoetan, 3:02:09 denborarekin.



Iker Maiora Elizondo 2:34:40 (13. postua)
 Jose Antonio Ruiz del Rey 2:36:09 (17)
 Alonso Gomez Viña 2:41:17 (43)
 Xabier Bergaretxe Olabide 2:43:11 (57)
 Gotzon Zulaika Arakistain 2:52:17 (192)
 Maite Maiora Elizondo 3:02:09 (454)
 Iker Amutxastegi Fernandez 3:30:18 (1.406)

Miguel Angel Montes Crespo 3:32:22 (1.460)
 Borja Rodriguez 3:33:17 (1.523)
 Asier Arzamendi Mujika 3:38:47 (1.673)
 Fernando Loyola Zelaia 3:42:55 (1.789)
 Mikel Cortabitarte Berasaluze 3:53:29 (2.063)
 Javier Hernando Albert 3:55:11 (2.118)
 Miguel Angel Castro Garrues 4:00:10 (2.243)

Broad Peak mendira eginiko espedizioari buruzko hitzaldia emango du Josu Bereziartuak



Morkaiek antolatutako mendi emanaldien barruan, 2010ean Broad Peak mendira egindako espedizioaren berri emango du Josu Bereziartuak. Era berean, Khan Tengri mendikatean egindako ibilaldiei buruz mintzatuko da Iñaki Santiso abenduaren 11n. Hitzaldi horrekin amaituko dira Morkaiekoren mendi emanaldiak. Bi saio horiek 21:30etik aurrera izango dira, Musika Eskolako auditorioan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Laudio 2 – Haundi 0 (3. maila)
 Elgoibar 0 – Mutriku 0 (Neskak)
 Elgoibar 1 – Getariako 1 (Erreg.)
 Elgoibar 0 – Iintxa 3 (Jub.)
 Elgoibar 3 – Lagunak 2 (Kad. A)
 Mutriku 2 – Elgoibar 4 (Kad. B)
 Bergara 7 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)
 Elgoibar 0 – Ostadar 2 (Inf. txiki)
 Amaiak Bat 1 – Elgoibar 0 (Aleb.)

PILOTA

Pala
 Zarautz 25 – Lagunak 12 (1. mailako nag.)
 Altzatarra 25 – Lagunak 12 (2. mailako nag.)
 Eskuz
 Añorga 22 – Lagunak 12 (2. mailako kad.)

ARETO FUTBOLA

Zaragoza 1 – Concepto Egile 7 (2B)

ESKUBALOA

Dominicos 31 – Alcorta Elg. 22 (Sen. mut.)
 Egia Bera Bera 29 – Tecnifuelle Elg. 26 (Sen. nesk.)
 Kukullaga 24 – Lauko Elg. 23 (Jub. nesk.)
 Kukullaga 30 – Astigarraga Elg. 25 (Kad. nesk.)
 Ikus Elg. 40 – Ordizia 1 (Kad. nesk.)
 Txarriduna Elg. 44 – Egia 26 (Kad. mut.)
 Pneumax Elg. 24 – Aloña Mendi 32 (Kad. mut.)
 Aloña Mendi 22 – Bankoa Elg. 27 (Kad. mut.)
 Arrasate 17 – Deca Elg. 17 (Inf. mut.)
 Murgil Elg. 31 – Aiala 12 (Inf. nesk.)
 Pulpo 19 – Aterpe Elg. 16 (Inf. nesk.)
 Cometel Elg. 20 – Aiala 10 (Inf. nesk.)
 Beristain Elg. 32 – Egia 35 (Jub. mut.)
 Gabaz Elg. 29 – Pulpo 15 (Sen. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1
 10:00 Elgoibar – Arrasate (Ohorezko inf.)
 12:00 Elgoibar – Eibarrak (Kad. B)
 16:30 Haundi – Bermeo (3. maila)

ESKUBALOA (Kirodegian)

Zapatua, 1
 11:30 Ikus Elg. – Aluminios aleman (Kad. nesk.)
 16:00 Tecnifuelle Elg. – Urnieta (Sen. nesk.)
 17:30 Alcorta Elg. – Egia (Sen. mut.)
 Domeka, 2
 10:00 Pneumax Elg. – Orereta (Kad. mut.)
 11:30 Astigarraga Elg. – Zuazo (Kad. nesk.)
 13:00 Lauko Elg. – Zuazo (Jub. nesk.)

ESKU PILOTA

Domeka, 2
 11:30 Lagunak – Añorga (2. mailako kad.)

Kaleko dantzen jaialdia antolatu du Elgoibarko Urban Culture elkarteak abenduaren 10etik 14rako

Ion Santotomas Bartzelonako B Boyak break tailerrak eskainiko ditu, doan

Elgoibar Urban Show kaleko dantzen jaialdia lau egunekoa izango da aurten: abenduaren 10etik 14ra artekoa. Elgoibarko Urban Culture elkarteak antolatzen du, eta aurtengoa hirugarren urtea izango da. Sarrerak salgai daude dagoeneko, zortzi euroan. Elgoibarren, Iriondo Kirolak dendan eta Gozotegi Amaigoian eskuratu daitezke, eta Eibarren, Ogiberri Calbeton okindegian (egunean bertan 10 euroan salduko dira lehiatilan). Era berean, Internetez ere erosi daitezke: www.danceandsmile.com.

Jaialdi honen barruan dantza urbanoekin zerikusia duten hainbat ekintza izango dira Herriko Antzokian. Batetik, Euskal Herriko bertako zein Espainiako B Boy onenek parte hartuko dute, Isaac Suarez buru dutela [Kulbik talde ezaguneko kidea da, eta Telecinco kateko *Tú sí que vales* saioa irabazi zuen laz].

Abenduaren 14an, bestalde, hemen bertako dantzari eta koreografoen txanda izango da. Marta Casas, Jaki eta Ion Mikel Landa koreografoak eta Maria Escobedo Urban Culture taldeko buruak zuzendutako Dance@Smile talde elgoibartarra igoko dira taula gainera.

Break tailerrak

Abenduaren 13rako, bestalde, kalejira egingo dute Kalegoen pla-



zatik Maalaraino. Dance&Smile taldekoek eta hurrengo egunean Herriko Antzokian dantza egingo duten dantzariak hartuko dute parte. Biharamonean, abenduaren 14an, Urban Show-ra gonbidatutako dantzariak erakustaldia eskainiko diete Institutuko ikasleei, goizez. Eta bukatzeko, abenduaren 12 eta 14rako lau break taller antolatu dituzte, ume zein gazteentzako. Ion Santotomas Bartzelonako B Boyak eman go diti eskolak, doan. Izena emateko: 679 237 611 edota m_danceandsmile@hotmail.com. Hip-hoparen kultura gazteei gerturatzeko antolatu dituzte tailerrak, eta bi orduetegi izango dituzte: 9-11 urte arteko haurrentzako tailerrak 17:00etik 18:00etara izango dira, eta 11 urtez gorakoentzakoak 19:00etatik 20:00etara.

Arantxa Ferreiro eta Aitor Asenjok hirugarren egin dute Pasai Donibanen jokatu den txapelketan



Arantxa Ferreirok hirugarren egin zuen domekan Pasai Donibanen jokatu zen Euskadiko VI. Doinu Zahar Txapelketan, eta Aitor Asenjo ere hirugarren egin zuen Euskadiko Gipuzkoar Aurreku Txapelketan. Neskek, *Ormazulo*, *Upelategi*, *Kontrapasa* eta *Hondarribi Haundia* doinuak dantzatu zituzten eta mutilek *Ormatxulo*, *Desafioa*, *Kontrapasa* eta *Zortikoa*. Nesketan, Nagore Indakoetxea errenteriarak irabazi zuen, eta mutiletan Iker Larunbe atarrabiarrak.

‘Zinea eta kolektiboak’ zikloa antolatu du Ongarrik

Ongarri Zine Klubak *Zinea eta kolektiboak* zikloa antolatu du Herriera eta Okil Beltzak-ekin elkarlanean. Abenduaren 13an *La cueva de los sueños olvidados* dokumentala eskainiko dute, eta abenduaren 20an *Barrura begirako leihoak*. Emanaldi biak Herriko Antzokian izango dira, 21:30etik aurrera.

‘Bodologuak’ antzezlan gaur, Herriko Antzokian

Bodologuak antzezlan eskainiko du gaur Txintxetak Produzioak-ek, Herriko Antzokian. Umerezko lana da, eta Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu dira aktoreak. 20:30ean hasiko da antzezlan, eta sarrerak lehiatilan bertan ere erosi ahal izango dira

Bilboko Arriagan dantzatuko dute Haritz dantzari taldekoek hilaren 2an

‘Besta Berri’ ikuskizunaren estreinaldia izango da Bilbokoa

Azken hamarkadetan Juan Antonio Urbeltzekin eta berak zuzentzen duen Donostiako Argia taldearekin izandako elkarlanari eutsiz, Bilboko Arriaga antzokian dantzatuko dute Haritz Euskal dantzari taldekoek abenduaren 2an, 19:00etan. Eibarko Kezka, Donostiako Argia eta Iruñeako Dugunako kideekin batera arituko dira *Besta Berri* ikuskizunaren estreinaldian.

“Bestaberri jaia, urtero, solstizioaren jaia baino apur bat lehenago egiten da. Ziur ez dakigun arren, baliteke Urbano IV.a aita santuak 1264an jaia ezartzea ekainaren 24an San Joan Bataiatzailearen irudiaren inguruan egindako ospakizun paganoak kristautzeko ahalegina izatea... Inspirazio-iturriak izan dira Bestaberri jaiari buruzko testua eta Donostian 1659ko maiatzean egindako ezpata-dantzak, Maria Teresa Austriakoaren eta Luis XIV.aren arteko ezkontzaren barruan”. Halaxe laburbiltzen du Juan Antonio Urbeltzek berak bere azken ikuskizuna. Bilbon hiru pieza gehiago antzetzuko dituzte: Lapurdi eta Nafarroa Behereko prozesioak; Jorge Oteizaren apostoluen aureskua, Oñatiko prozesio-ohiturei eta dantza-ohiturei helduta, eta Zuberoako herri-antzerkian oinarritutako turkoen eta kristauen pastorala”.

Jaiotzen Lehiaketa abenduaren 15ean eta 16an izango da

Abenduaren 15 eta 16an egingo dute aurten 14 urtez beherakoentzako jaiotza lehiaketa. Interesatuak abenduaren 15ean eman beharko dute izena, 11:30etik 12:30era. Biharamonean, hilaren 16an, parrokiako arkupeetara eraman beharko dituzte lanak, 10:30erako. Sari banaketa egun horretan bertan izango da, 13:00etan, parrokiaren, eta jasotako lan guztiekin erakusketa bat osatuko dute gero. (San Bartolome kaleko 18. atarian, Arrieta jantzidendaren lokallean). Bestalde, Parrokia jaiotza biziduna abenduaren 21ean inauguratuko dute Elgojaio-tzakoez Parrokiako kaperan. Astelehenetik barixakura 17:30etik 20:30era zabalduko dute, eta zapatuetan eta jai egunetan, 10:30etik 13:30era goizez, eta 17:30etik 20:30era arratsaldez.

‘Lingua Nabajorum’ antzezlanak ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian, abenduaren 5ean



Ez dok hiru taldeak *Lingua Nabajorum* antzezlanak eskainiko du eguaztenean, abenduaren 5ean, Elgoibarko Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Euskaren historiaren inguruko lana da. Euskaldunak beti ibili dira liskarretan kanpokoekin zein euren artean, eta antzezlanen kontakizunak teoriaren arabera, liskar horiei esker sortu eta garatu da euskara. Gatazkak, era batekoak edo besteak, beti izango direla defendatzen dute antzezlaneko protagonistek, Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek, baina oztopo guztien gainetik euskarak aurrera egingo duela. Sarrerak lehiatzen bertan salduko dira, bederatzita euroan (Ikasleek eta Gazte Txartela dutenentzat sei euro).

Eriz Magoaren saioa, abenduaren 2an

Eriz Magoaren ikuskizuna antolatuko du Elgoibarko Kultura Sailak abenduaren 2rako. Herriko Antzokian izango da, 16:30etik aurrera.

Xebas Larrañaga artista azkoitiarraren erakusketa hilaren 7tik 30era

Xebas Larrañaga artistaren eskultura eta pintura erakusketa zabalduko dute martitzenean Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 30era arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. 14 urterekin hasi zen arte munduan Larrañaga, eta asko dira urte guzti hauetan jaso dituen aipamenak. Bere obra batzuk ere izen handia hartu dute. Horietako bat da, adibidez, 2003. urtean Loiolan Diego Garcia atletaren omenez jarri zuten brontzezko eskultura.

Kale antzerkia Elgoibarren abenduaren 14an

Gipuzkoako itxaropenaren telefonoak 25 urte bete ditu, eta horren harira izen bereko kale antzerki bat sortu dute. Hilaren 14an eskainiko dute, 18:30etik aurrera, Maalan hasita.

Juan Arriola eta Harkaitz Miner biolin-joleen kontzertua Mendaron

Juan Arriola *Artañolak* eta Harkaitz Minerrek *Hariari tiraka* euren azken lana aurkeztuko dute Mendaron, abenduaren 7an. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 22:00etatik aurrera, eta sarrerak salgai daude dagoeneko Morroskillo dendan, 3 euroan.



LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko edo sukaldari nahiz zerbitzari lanak egiteko prest. Garbiketak ere egingo nituzke. ☎ **654 743 313**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo sukaldari nahiz zerbitzari lanak egiteko prest. ☎ **627 162 936**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **660 113 373 (Agustina)**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **685 771 734**
- Emakumea eskaintzen da lanerako: nagusiak zaintzeko, esperientziaduna. Orain arte baserrietan egin du lan, bereziki. ☎ **653 723 095**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean zein ospitalean. Asteburuetan lan egiteko prest. Garbiketa lanak ere egingo lituzke. ☎ **699 609 190**
- Hemen bertako emakumea lan bila. Umeak edo nagusiak zainduz lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ **629 144 188**
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Jardunaldi osoz edo egun erdiz. Gauz lan egiteko prest. ☎ **680 121 252**
- Emakumea lan bila: zerbitzari, sukalde laguntzaile, garbiketa lanak edo nagusiak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **608 474 923**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. ☎ **660 551 781**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialeterako prestaketa. Talde txikiak. ☎ **680 858 550 / 943 741 594**
- Magisteritza diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak emango lituzke. Ikasgai guztiak. ☎ **696 295 098**

- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo umeak eta adinekoak zaintzeko. Sukaldean lan egiteko ere bai. ☎ **605 720 298**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia daukat, eta paperak legez. ☎ **690 925 929**
- Emakumea lan bila: pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia. Orduka lan egiteko prest. ☎ **633 843 512**
- Gizonezkoa lan bila: gidari, mendiko lanetan eta biltegiaren esperientzia. ☎ **649 659 041**
- Emakumea lan bila: pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka eta asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ **699 232 823**
- Emakumea lan bila: pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **616 690 415**

ESKAITZA

- Irakurzalea den euskaldun zaharra behar dut. Euskarazko literaturaz gozatzeaz gain, ozen ederki irakurtzen duena eta eraman onekoa dena. Asteleheneetik barixakura, 13:30etik 14:00etara. ☎ **660 969 679**

ETXEBIZITZAK

- Elgoibar erdigunean 97m2ko duplexa, 85m2ko lora-tegia eta 15m2ko garaje itxia salgai. Lehen solairuan: sukalde, komuna eta egongela-jangela handia. Bigarren solairuan: komuna, bi gela armairu enpotratuarekin eta beste gela bat jantzileku eta terrazarekin. 390.000 euro. Beste garaje itxi bat aukeran. ☎ **661 700 433**
- Etxea alokatzen da Elgoibarko erdigunean. Bi logela, egongela, despentsa. Jantzita. Berri samarra. Igogailuarekin. ☎ **943 203 083**

- Aukera! Mendaron etxe berria salgai. 132.000 euro. ☎ **690 787 891**
- Obra berriko etxea salgai, San Bartolome 30ean. Etxearen banaketa aldatzeko aukera. San Bartolome kalera eta Plaza Txikira bistak. Galdetu Ferpi dendan edo ondoko telefonoan. ☎ **943 740 815**

BESTELAKOAK

- Koltxoi babesgarria salgai. Kotoia 100%. Mash markakoa. 160x190cm. Oso merke. ☎ **686 882 162**
- La Unión elkarteko bazkide plaza salgai. ☎ **659 773 681 (Josu)**
- Gabonetako azoka Eibarren. Etxean dituzun jostailu, disko edo bestelakoak saltzeko aukera. Anima zaitetz! geltokielkarrea@hotmail.com ☎ **650 773 424**
- Ume karro bat oparitzen dut. Kapazoa eta aulkia ere bai. Bebecar ipod markakoa, gorria. ☎ **635 741 955 (Nere)**
- Lorituaneako aldapan belarritako bat aurkitu dut. ☎ **686 720 315 (Angeles)**
- Maclaren etxeko twin techno bikientzako aukia salgai. ☎ **650 132 164**
- Ume aukia, moisesa, trona, hamaka... salgai. Bakar-ka saldu daitezke, prezio onean. ☎ **676 899 604**
- Bi hilabeteko txakur kumeak oparitzen ditut. Sallo-bente bailarako Berdun baserrikoak. ☎ **676 075 137**


KINTOAK

- 68 kintoen bazkaria urtarilaren 26an. 50 euro sartu behar dira, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 21 0071125749 ☎ **628 680 252 (Maite) / 605 775 357 (Ignacio)**

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA
2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

AUTOLAKAZIA
 KULTURA JARDUNEGIA
 BERTSU BULEN
 BERTSU PUBLIKOAN
 BERTSU PROIEKTUA
 KONJUNKTIBEA

gure plaza
 Mire Oñe Iturrion
 BFA DFB
 BERTSU BULEN
 BERTSU PUBLIKOAN
 BERTSU PROIEKTUA
 bbk
 EROSKI
 TOKIKOM



• Zorionak, **Alain**, astelehenean 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Ibai**, abenduaren 3an 5 urte egingo dituzulako. Elgoibarko familiakoen partez.



• Zorionak, **Ane**, etzi 2 urtetxo egingo dituzulako. Ondo-ondo pasa eta patxo handi bat familiakoen, eta bereziki Maddiren partez.



• Zorionak, **Manexl**. Azkenean iritsi da 5 urte potolo betetzeko eguna. Primeran pasatu zure egunean. Aita-txo, amatxo, eta Oihan.



• Zorionak, **Nahia!** Gurre txikiak laga dio txiki izateari. Dozenaka zorion-musu, Elgoibartik Bilbora. Aittitta, ama-ma, Maite eta tio.



• Zorionak, **Ekain**, gaur 9 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoen eta bereziki June eta Markelen partez. Zorionak, txapeldun.



• Zorionak, **Ibai**, gaur 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, familiakoen, eta bereziki Leireren partez. Oso ondo ospatu eguna.



• Zorionak, **Iker**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Muxu eta besarkada handi bat, Iratiren partez.



• Zorionak, **Iria Fernandez Bao**, gurasoen eta neben partez. Ondo pasa zure eguna, eta muxu handi bat.



• Zorionak, **Juancar, Nora eta Koldo**, zuen urtebetetze egunagatik. Familiakoen eta bereziki Ibon eta Anerren partez.



AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Gurasoentzako KAFE-TERTULIAK Gaztelekuan

ALKOHOLAREN KONTSUMOA NERABEZAROAN

Eguna: Abenduak 15 ★ Ordua: 11:00etan ★ Lekua: Gaztelekua

Hizlariak: NORBERA ZENTROKO Alberto Alegria eta Maribel Elustondo

Izena emateko epea abenduaren 14an amaituko da (943 743 228 edo gaztelekua@elgoibar.org)

Gaztelekuak gurasoentzako arreta zerbitzu bat ere eskaintzen du, asteazkenetik ostiralera 16:30etik 17:00etara eta 20:00etatik 20:30era. Bertan, hezitzaileekin hitz egin edo proposamenak egiteko aukera dago.

30 barixakua

Antzerkia

20:30 'Bodologuak'
Herriko Antzokian.

Tailerra

16:00 Autoaren mekanika
Meka Ezenarro ikastetxean.
Izena emateko: 943 748 270
(Nora Ramon)

1 zapatua

Tailerra

10:00 Autoaren mekanika
Meka Ezenarro ikastetxean.
Izena emateko: 943 748 270
(Nora Ramon)

Informazioa

11:00 eta 15:30 HIESaren
nazioarteko eguna
Gurutze Gorriko kideek
informazio mahaia jarriko dute
Kalebarren plazan.

Hitzaldia

11:30 'Seme-alaben heziketa
gizarteari begira'
Kalamua Guraso elkarteak
antolatuta, Kultur Etxeko
hitzaldi gelan.

Hitzaldia

18:00 'Familia berdintasunean
eraikitzen'
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

2 domeka

Ikuskizuna

16:30 Eriz magoa
Herriko Antzokian.

3 astelehena

Suskararen eguna

9:30 Kalejira
Ondoren, dantzaldia
Egan taldeko Xabier Saldias eta
Idoia Uralderekin. Herri Eskolak
antolatuta, Lekuederren.

Flashmob

18:00 Euskararen aldeko
dantzaldia
Mendaron, plazan.

5 asteazkena

Antzerkia

20:30 'Lingua nabajorum'
Ez dok hiru teatroak
aurkeztuko du, Herriko
Antzokian.

Ikastaroa

17:00 Mina arintzeko teknikak
Iñaki Figueiredok eskainiko du,
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
Hiru saio izango dira guztira
(abenduak 5, 12 eta 19).

7 barixakua

Erakusketa

18:30 Eskultura eta pintura
Xebas Larrañagaren lanak
jarriko dituzte ikusgai, Kultur
Etxean. Hilaren 30era arte.

Musika

22:00 'Hariari tiraka' diskoaren
aurkezpena
San Agustin Kultur Gunean,
Mendaron.

14 barixakua

Kale antzerkia

18:30 'Gipuzkoako
itxaropenaren telefonoa'
Maalako parkean hasita.

Dantza urbanoak

20:30 'Urban Show'
Hip-hop dantza ikuskizuna,
Herriko Antzokian.

ZINEA

'Bypass'

1, zapatua: 19:00/22:15
2, domeka: 19:00
3, astelehena: 21:30



'Hotel Transilvania'

6, eguna: 19:00
9, domeka: 16:30



'La vida de Pi'

7, barixakua: 22:15
8, zapatua: 19:00/22:15
9, domeka: 19:00
10, astelehena: 21:30



'La vida de los
sueños olvidados
(Ongarri zinekluba)'
13, eguna: 22:15

Abenduaren 13an, 19:00etan,
**jostailuen aukeraketari buruzko
hitzaldi-tertuaia.** Herriko guraso guztientzat.
Izenematea: abenduaren 11ra arte

Abenduak 1,
HIESaren kontrako eguna.
Etorri xingola gorriaren bila!

OKINDEGIA	BOTIKA ORDUTEGIAK: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00			
2 domeka: FOTERO	GUARDIAK			
6 eguna: IBARRENEA	Egunez	Gauetz	Egunez	Gauetz
8 zapatua: EIZAGIRRE	9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
9 domeka: FOTERO				
Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142	30 Ibañez	Barrenetxea	8 Ibañez	Barrenetxea
Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638	1 Garitaonandia	Garitaonandia	9 Ibañez	Barrenetxea
Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384	2 Garitaonandia	Garitaonandia	10 Garitaonandia	Garitaonandia
	3 Etxeberria	Etxeberria	11 Etxeberria	Etxeberria
	4 Fernandez	Garitaonandia	12 Fernandez	Barrenetxea
	5 Yudego	Yudego	13 Yudego	Yudego
	6 Yudego	Yudego	14 Zabaleta	Yudego
	7 Barrenetxea	Barrenetxea		

ATE IREKIAK ELGOIBARREN

Elgoibar eraikina · Santa Klara kalea, 32

Bi eta hiru logelatako
etxebizitzak, trastelekuarekin
eta aparkatzeko plazarekin

144.750* eurotik aurrera

Bisitatzeko aurrez eskatu behar da
hitzordua · Azaroaren 30a baino lehen



%25eko
DESKONTU
GEHIGARRIA**
EZ GALDU AUKERA!
AZKEN EGUNAK



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEA
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

www.restaurantelasa.es

BERGARA

